



Agosti  
Xaho

*Aitzindari bakartia*

1811-1858

BIDeGILEAK

Egilea:

**Xabier Zabaltza**



Xaho, heldua (argazkia: Baionako Euskal Museoaren bilduma)

# AGOSTI XAHO

(1811-1858)

## Aitzindari bakartia

### UMEZURTZA

Joseph-Auguste Chaho Zuberoako Basabürüko hiriburuan, Atharratzen, sortu zen, 1811ko urriaren 10ean. Ongi idatzi dut: «Joseph-Auguste». Jaiotza-agirian ikusten denez, horixe zen haren egiazko izena. Hark, baina, «Joseph-Augustin» edo, besterik gabe, «Augustin» izenpetzen zuen erdaraz eta «Agosti» euskaraz. Batzuetan, «de Navarre» esaera gehitzen zion bere deiturari, Nafarroak berebiziko garrantzia zuelako haren pentsamenduan eta, haren ustez, baxenabartarrak eta zuberotarrak baskoiak direlako, nafarrak bezala (beste

euskaldunak, ordea, kantabriarrak omen dira). Ortografia berrira ekarririk, erdaraz Auguste edo Augustin Chaho izan zena Agosti Xaho bilakatzen da euskaraz.

Aitak, André Xahok, hogeita hamalau urte zituen Agosti jaio zenean. Amak, Rose Lagardek, hamazazpi urte bakarrik. Xahotarrak, aita André eta aitatxi Joseph, Atharratzekoak ziren, Erregearen Justiziaren ordezkariak. Mauleko Lagardetarrek ere ongi jarritako funtzionarioak ziren. Xahotarren artean, bazen idazlerik: osaba Pierrek saiakera bat idatzi zuen euskararen jatorriaz eta gramatika bat,

L'an mil huit cent onze et le Dix du mois Octobre  
 à dix heures du soir, pardevant nous Jean Pierre  
 Darhauze Maire et officier public, de la présente  
 Commune de Larretz chef-lieu de Canton de même  
 non au troisième Arrondissement Communal de Département  
 de Basse Egnésie. Et Comparés sous André  
 Chaho de ladite présente Commune, huitième domicile  
 âgé de trente quatre ans, lequel pour se faire  
 que la Dame Rose Lagarde <sup>Présentement</sup> âgée de dix  
 sept ans demeurant aussi en cette commune a  
 avoué en la maison de Chaho de même lieu,  
 ce jourd'hui à quatre heures de relevée d'un enfant  
 mâle issu de son mariage avec ladite Rose Lagarde  
 auquel enfant qu'il nous a représenté et dont le  
 sexe a été par nous reconnu il a imposé le  
 nom de Joseph-Auguste Chaho De tout quoi  
 acte lui a été octroyé en présence de Pierre Guir  
 Anguelho cultivateur âgé de cinquante deux ans  
 domicilié en la Commune de Larretz. Jernain  
 de Larretz, et de feu Jean Abadie maréchal forgeron  
 âgé de quarante cinq ans demeurant au présent Bourg  
 de Larretz, témoins qui ont signé avec le comparé et  
 nous le Maire officier public après lecture de l'acte  
 Chaho & Babadie *Anguelho*  
 Darhauze  
 Maire

Xahoren jaiotza-agiria (Atharratze, Zuberoa)  
(argazkia: Atharratze-Sorholüzeko Herriko Etxea)

biak argitaragabeak. Agosti eta haren hiru anaiak tradizio horri lotuko zitzaizkion.

Agosti seme nagusia zen. Guztira zazpi anai-arreba ziren. Haren anaia Jean-Baptistek Etxahun Barkoxeko bertsolariaren bizitzaz liburu bat idatzi zuen frantsesez eta Joben liburua Zuberoako euskararen eman. Beste anaia batek, Jean-Pierrek, Etxahunen biografia hori zubererara itzuli zuen. Gai-



Atharratzeko trinketa, Xahoren sortetxea  
(argazkia: Maitena Etxebarne)

nerako haurrideen izenak Pierre-Eudore, Marie-Louise, Marie-Jeanne eta Henriette ziren, baina haietaz ez dakigu ia deus. Pierre-Eudore ere idazlea izan zen; haren izkribu guztiak, tamalez, galdu egin dira.

Andréren eta Roseren etxean euskaraz egiten zen eta, pentsatzekoa denez, frantsesez ere bai. Agosti, gainera, gaskoiz eta gaztelaniaz ere ongi moldatzen zen. Alemanez, latinez eta, agian, grekoz irakurtzeko eta itzultzeko adina bazekien. Haren sanskrito maila, ordea, ahoberokeria handi samarraz sinestarazi nahi zuena baino kaxkarragoa zen. «Xaho» eta «apaltasuna» ez ziren inoiz hoskideak izan.

Hamaika urte zituela, Oloroeko apaiz-gaitegi txikian ikasten hasi zen Agosti



Xahoren ustezko potreta, nafarrez jantzirik

gurea. Berehala gai intelektualek kezkatu zuten, «Filosofoa» izengoitia irabazi baitzuen. 1830ean, hemeretzi urte zituenean, ama galdu zuen behin betiko. Heriotza horrek bizitza baldintzatuko zion beste edozerk baino gehiago: orduz geroztik «Umezurtza» (*Orphelin*) izendatuko zuen bere burua. Hurrengo urtean, Agostik Parisa jo zuen. Haren asmoa zuzenbidea



Xahoren gonbidatzailea. Laure Junot, Abrantèsko dukesa (1784-1838)



Xahoren irakurlea.  
Victor Hugo  
(1802-1885)

estudiatzea zen, baina, denbora gehiago eman zuen filosofia eta mitologia ikasten legeak aztertzen baino.

1838 arte, Abrantèsko dukesaren (1784-1838) etxeko tertulietan parte hartu zuen. Ez dago dudarik, Parisen bizi izan zeneko dozena bat urteetan, Xahok bere burua ezagutarazi zuela idazleen artean. Haren izena behin eta berriro agertzen da *La*



Xahoren lehen biografoa. Gustave Lambert  
geografoa (1824-1871)

*France Littéraire* aldizkarian. Tentagarria da pentsatzea Lamartine, Balzac, Dumas, Nerval eta beste idazle garaikide batzuk tratatu zituela, baina, zoritxarrez, ez dugu horren froga bat ere. Aitzitik, litekeena da Victor Hugok (1802-1885) Xahoren libururik eragingarriena, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1836), irakurri izana, «L'homme à la carabine» haren poema (1837) Gastibeltzari eskainia delako, Sagastibeltza jeneral karlista baizik ez denari, Xahok liburu horretan aipatzen duenari. Hugok, gainera, Gustave Lambert-ek (1824-1871) Agostiz idatzi zuen biografiaren ale bat zeukan bere Guerneseyko liburutegian.



Lehen *Ariel*-en  
editorea. Charles  
Lassailly (1806-1843)

Atharraztarrak berak aditzera ematen duenez, Parisen Charles Nodier (1780-1844) L'Arsenal-eko liburutegiko zuzendari ohia-  
ren dizipulua izan zen. Nodier idazle eza-  
guna zen XIX. mendearen hasierako Fran-  
tzian eta oso interesaturik zegoen antzinako  
probintzietako hizkuntza eta dialektuetan.  
Geroko ikerle batzuek pentsatu dute Agos-  
ti Nodier-en idazkaria izan zela. Nodier-ek,  
baina, behin ere ez du Xaho aipatzen, ez  
bere lanetan, ez bere gutunetan, eta haren  
bizitza aztertu dutenek ere ez dute zube-  
rotarrarekiko harremanen berri ematen.  
Hala ere, ziurtzat jo dezakegu Flora Tristan  
(1803-1844) egile sozialista eta feminista,  
eta Charles Lassailly (1806-1843) eta Théo-  
phile Gautier (1811-1872) idazleak ezagutu  
zituela Umezurtzak. Azken bi horiek *Ariel*  
izeneko aldizkaria argitaratu zuten Parisen  
1836an. Urte batzuen buruan, aingeruzko



Xahoren maisua? Charles Nodier idazlea (1780-1844)



Parnasotar poeta eta Xahoren ezaguna. Théophile Gautier idazle gaskoia (1811-1872)



Feminista eta sozialista. Flora Tristan (1803-1844),  
Xahoren ezaguna

izen horixe emanen zion Agostik Baionan editatuko zuen kazetari.

1838an, Okzitaniako Tolosan kokatu zen, non *Revue des Voyans* argitaratzen saiatu baitzen. Noizean behin Euskal Herrira jais-ten zen, mugalari lanetan aritzen baitzen. Adibidez, Ganix Makeako kontrabandista ospetsuarekin elkarlanean, Beirako prin- tzesari (1793-1874), «don Carlos»-en andre- gaiari, Elizondora pasatzen lagundu zion. Languedoceko hiriburuan zortzi hilabete eman ondoren, Parisa itzuli zen. 1840an *L'Espagnolette de Saint-Leu* liburua argita- ratu zuen, non errege-familiari leporatu bai- tzion Condé-ko printzearen heriotzarekin



Abenturakidea. Jean Anxordoki kontrabandista,  
«Ganix Makeakoa»  
(argazkia: Baionako Euskal Museoaren bilduma)

zerikusirik izatea. Horregatik, Paristik ihes egin eta bolada batez Atharratzen ezkutatu behar izan zuen. Garai hartan, Henri Belzuntzeko (1796-1872) bizkonde legitimistarekiko harremanak areagotu zituen. Urte batzuk geroago, 1847an, Euskal Herriko historia bat idatziko zuten elkarrekin, hiru liburukitan (*Histoire primitive des Euskariens-Basques* lehen liburukiaren egilea da Xaho). Bitartean, antzinako grekoen argizarizko pinturaren sekretuak ikertzen eta mugimendu iraunkorra bilatzen ere aritzen zen.



María Teresa de Braganza, Beirako printzesa  
(1793-1874), Xahok muga pasatzen lagundu ziona

Parisa denbora gutxirako itzuli eta gero, 1843an berriro Zuberoan aurkitzen dugu, Sohütan hain zuzen ere, Julie-Adrienne Karrikabururi (1827-1898) eskolak ematen, urte batzuen buruan Madame de Villéhélio entzute handiko musikologoa izatekoa zenari. 1844an, Baionan kokatu zen. Pierre Lespès bere lagunak hiri horretan zuzentzen zuen *Trilby* kazetan parte hartu zuen, bi astez bakarrik, berehala editoreekin haserretu baitzen. Urte horretako urriaz geroztik, Lespès-ekin batera, *Ariel* aldizkaria argitaratzeari ekin zion. *Ariel* literaturaz arduratzen zen hasieran,

baina 1846tik aurrera politikaz aritu zen gehienbat. Xaho kazetaria ez ezik, ia-ia probokatzaile profesionala ere izan zen, zenbait duelutan parte hartu zuen eta. Arrazoi osoz, Koldo Mitxelena «Euskal Herriak berandu sortu ez zuen erromantiko bakarra» iritzi zion Xahori.

Eragile nagusietako bat izan zen 1848ko otsailean Baionan Bigarren Errepublika aldarrikatzeko. Guardia Nazionaleko komandante, zinegotzi eta Kontseilu Orokorreko kidea izan zen eta 1849ko hauteskunde legegileetan, demokrata-sozialen hautagai, ia-ia hautetsia izan zelarik. Hori zela eta, Piarra Topet *Etxahun*-ek (1786-1862) bertso ospetsu batzuk eskaini zizkion. 1848ko udaberrian, Karl von Gagner (1826-1884) prusiar abenturazalearen, Lizarrako konplot karlista antolatzen saiatu zenaren, bidaidea izan zen.

Bonaparteren diktadurak *Ariel* itxiarazi zuen, 1852ko otsailean, eta bi hilabete geroago Xaho behartu Belgikara lehenbizi eta berehala Hego Euskal Herrira mugitzera. Baliteke Gasteizen Francisco Navarro Villoslada (1818-1895) Nafarroako idazle karlistarekin harremanetan egon izana.



Xahoren imitatzaila. Francisco Navarro Villoslada nafar idazlea (1818-1895)

Horren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) eleberrian Xahok asmatuiko Aitorren kondairaren eragina nabarmena da.

Aita hil zorian zela, 1853ko maiatzean, Baionara bueltatu zen, hitza eman baitzuen ez zuela berriro parte hartuko bizitza politikoan. 1858ko urriaren 23an hil zen Agosti Xaho, Ipar Euskal Herriko hiriburuko Pont Mayou (gaur egungo Victor Hugo) karrikako 12an. Ezkongai eta, apika, andrerik ezagutu gabe. Euskal Herrian zibilizazioa ehortzi zuten lehena izan omen zen.



Diktadorea. Louis-Napoléon Bonaparte (1808-1873)



# Pentsalari eta eragilea

Orfeo, azirik garrantzitsuenetako bat

## AZTIA

Xahoren ideologia oso korapilatsua zen, baina barne-batasun handia zuen. Kristautasunaren aurreko tradizio sekretu baten oinorde sentitzen zen. Egiatzko eta alegiazko profeta edo «azti» (*voyant/vidente*, erdaraz) batzuen utzian sinesten zuen. Abel, Krishna, Orfeo, Zarathushtra, Moises, Buddha, Sokrates, Kristo, Muhammad eta, zer esanik ez, Agosti Xaho bera izan dira azirik garrantzitsuenak historian zehar. Xahoren ondoren, beste azti batzuk izan dira, hala nola, Eliphas Lévi (1810-1875) okultista handia, zuberotarraren mireslea, Arthur Rimbaud (1854-1891) poeta are handiagoa eta, Euskal Herrian, Alexis

Saratxaga (1840-1918). «Profeta» hitza beldur pixka batekin idatzi dut, Xahok eginiko profeziak ez direlako pentsatu adina. *Voyage*-n Gernika suntsiturik irudikatu zuen eta horregatik batzuek uste izan dute Xahok 1836an iragarri zuela 1937an Condor legioak euskaldunen hiri santua bonbardatuko zuela. Ez da hola: Xaho Lehen Karlistadaz ari zen, 1834ko otsaileko Gernikaren setioaz, hain zuzen ere.

Antzinako pitagoriko eta estoikoei jarraituz, Umezurtzaren arabera, historia ez da lerro bat, biribil bat baizik. Alegia: 60.000 urtetik behin errepikatzen da. Nolabait «itzulera eternal» batean sinesten zuen, Friedrich Nietzsche (1844-1900)

filosofo alemanak hamarkada batzuk ge-roago zabalduko zuen doktrina berean. Allan Sandage (1926-2010) astrofisikari estatubatuarrak antzeko zerbait pentsa-tzen zuen: unibertsoa sortu eta suntsitu egiten dela, ez 60.000 urtetik behin, nos-ki, 80.000.000.000 urtetik behin baizik.

Xahok zioenez, mundua gaztea da: 8.000 urte ditu bakarrik. Horretan nahiko kon-tserbadorea izan zen. Bibliaren bertsio ma-soretikoan oinarriturik, XIX. mendearen lehen erdian, mendebaldar gehien-gehie-nek sinesten zuten mundua bakarrik pixka bat gazteago zela (6.000 mila urte inguru), baina, Xaho baino lehenago, Georges-Louis de Buffon (1707-1788) naturalista frantses handia ausartua zen jendaurrean esatera Lurra gutxienez 75.000 urte zituela (gaur dakigunez, 4.500.000.000 urte ditu).

60.000 urteko historia lau arotan zatitzen da. Eguzkiaren seme-alabak (euskaldunak eta hegoaldeko gainerako herriak, alegia) paradisuari bizi izan ziren Lehen edo Urrezko Aroan. Aro horrek 3.000 mila urte iraun zuen, gutxi gorabehera, Kris-to aurreko 6000tik 3000ra bitarte. Garai hartan, euskaldunak gaurko Europaren

hegoaldean, Afrikan eta Asian bizi ziren. Gauaren seme-alaben, hots, iparraldeko *tartaro* edo zelten eta beste indoeuropar herrien inbasioaren ondorioz, paradisia bukatu eta Bigarren Aroa gertatu zen, Kristo aurreko 3000tik Ora iraun zuena. Orduan, euskaldunak gaur egungo zazpi herrialdeetara mugaturik gelditu ziren. Hirugarren Aroa duela 2.000 urte hasi zen. Bigarren eta hirugarren aroetan eus-kaldunek gerra besterik ez dute ezagutu: zeltiberiar, feniziar, kartagotar, erromatar, godu eta mairuen kontra. Oraindik Hiru-garren Aroan gaude, baina, 1830eko ha-markadan, Laugarren Aroa, hegoaldeko herrien nagusigo berria ekarriko duena, iragartzen zuten zantzu batzuk igartzen hasiak ziren: iraultzak eta karlistada, adibidez. Historiaren kontzepzio zikliko hori, hinduismotik, mazdeismotik, He-siodogandik eta filosofia grekotik hartua, funtsezkoa da pentsamendu xahotarrean eta esplikatzen du zergatik jarri zen karlis-ten alde, errepublikarra izanik ere. Lauga-rren Aroaren ondoren, Lurra uholde edo sute baten bidez suntsituko da, berriro sortu ahal izateko, baina lasai: oraindik 52.000 urte falta dira Apokalipsirako.



Xaho poligenista ala monogenista zen? Alegia, pentsatzen zuen gizaki guztiok bikote berarengandik gatzela ala bikote batzuegandik? Aztia duda-mudatan zegoen kontu horretan. Adibidez, *Philosophie des religions comparées* liburuan (1848), Adanez gain, gizateriaren balizko beste hiru aita aipatzen ditu: Xisuthro sumeriarra, Meshia pertsiarra eta Bergelmer eskandinaviarra, baina aita bakar bat (edo milioika aita) izateko aukera baztertu gabe. Aitor, euskaldunen aitalehena, Adanekin berdintzen du batzuetan, Abraham israeldar eta arabiarren aitalehenarekin beste batzuetan, eta Tubal espainolen aitalehenarekin beste batzuetan.

«Aztitasunak» alimaleko eragina izan zuen ez bakarrik Xahoren baitan, XIX. mende hasierako Frantziako literatura osoan baik eta garai hartako egile guztiak ukitu zituen. Mugimendu horretako idazle batek, Edgar Quinet borgoniarra (1803-1875), iragarria zuenez, erlijio gnostiko berria gauzatuko zuen herria Pirinioetatik abiatzekoa zen. Ez da zaila pentsatzen Xahok Quineti ikasi ziola Euskal Herria izanzen zela hurbiltzen ari zen Urrezko Aro be-



Pirinioen profeta. Edgar Quinet (1803-1875)

rriko populu hautatua. Xahoren «konbertsio» horren antzeko adibideak aurkitzen erraza da. Andrzej Towianski (1799-1878), Adam Mickiewicz Poloniako poeta nazionalaren maisu intelektuala, lehenik sekta baten buruzagia izan zen, eta gero, erlijioaren bidez, konturatu zen poloniar herria zela Berri Onaren eramailea. George William Russell-ek (1867-1935) antzeko bidea egin zuen gnostizismotik nazionalismo irlandarrera eta Vicente Riscok (1884-1963), teosofiatik nazionalismo galegora.

Umertzuzak erlijio positibo guztiei uko egin eta bere doktrina sortu zuen. Iao, aztien jainko bakar eta hirukoa, jauresten zuen. Iaoren izena, *Iao-On-Goikoa*-tik omen dator eta, ustez, *Yahweh* juduen

jainkoaren eta *Iao-piter* edo Jupiterren erromatarren jainkoaren izenei lotua dago. «Iao» orfikoan Fanes izaki gorenaren izenetako bat ere bazen. Hala ere, zuberotar aztiak ez zuten Ortzi euskaldun jentilen ustezko jainkoaren berri. Willen Jan Van Eys-ek (1825-1914) (berr)aurkitu zuen Ortzi, Aymeric Picaud Poitouko erroresak XII. mendean aipatu zuena, eta Jupiter eta Thor indoeuropar jainkoekin konparatu zuen.


Xahok lau mailatan banatzen zituen gizakiak. Hona hemen: aztiak (*voyants*), oso gutxi direnak; fededunak (*croyants*), kultu edo sistema batean sinesten dutenak; eszeptiko edo sofistak; eta ateo edo fedegabeak (*mécréants*). Zer esanik ez, bere burua goi mailako «kastan» kokatzen zuen. Liburu batzuk beste kastetako kide ezagunen kontra idatzi zituen, adibidez, *Paroles d'un voyant* (1834) Félicité de Lamennais (1782-1854) fededunaren kontra eta *La propagande russe à Paris* (1837) Ferdinand Eckstein (1790-1861) sofistaren kontra. Zuberotarraren hierarkia oso elitista da, baina erabat intelektuala da eta ez du zerikusirik Arturo Campión



Fededuna. Félicité de Lamennais (1782-1854)

(1854-1937) nafarraren eta Sabino Arana (1865-1903) bizkaitarraren sailkapen ustez arrazistekin. Hala ere, egia da Xaho izugarrizko mespretxuaz mintzatzen dela gaztelauez, bereziki gaztelau liberalez, «agotak» eta «beltzak» deitzen baitzituen.

Ez da egia, ordea, Xaho antisemita zenik. Ez zuen judu eta arioen artean bereizten, batzuk eta besteak iparraldeko herriak zirelakoan. Haren pentsamendua Bibliaz eta Kabbalaz elikatzen da, nahiz eta haren modura euskaldundurik. Aztiaren erlijioan, *Tora*-ren ordez Gernikako legea dago indarrean; hebreeraren ordez, euskara; Israelgo hamabi leinuen ordez, Euskal



Herriko zazpi herrialdeak (teosofo guztiak bezala, obsesionaturik zegoen zazpi zenbakiarekin); eta Mikel aingeruaren ordeztu, Ariel. Euskal Herria da benetako herri hautatua, «Mendebalde sofistako Judea» bihurtu nahi zuena. Doktrina horren abiapuntua da sinestea historiaren hasieran jainkozko Errebelazio bakar bat izan zela herri guztiendako. Hipotesi hori Wilhelm Schmidt (1868-1954) apaiz alemanak zabaldu zuen Xahoren ondoren. Schmidten eta Vienako Eskola Antropologikoaren eragina begi bistakoa da beste apaiz batengan, Joxemiel Barandiaran (1890-1991) gipuzkoarrarengan, hain zuzen ere, eta, beraz, garaikideak ez baziren ere, ez da gehiegikeria Xaho eta Barandiaran ikaskidetzat eta gogaidetzat jotzea. Egile horien guztien arabera, gizateriaren lehen erlijioa monoteismoa izana zen eta politeismoa jatorrizko monoteismo horren endekatzearen ondorioa izan liteke.

Horregatik guztiagatik, atharraztarra foruzaleen mito baten aldeko sutsua zen. Euskaldunen «jatorrizko monoteismoa» da mito hori, kristautasunarekin bat ez datorrena, haren deismo gnostikoarekin

baizik. Haren arabera, euskaldunak ez ziren inoiz idolatrak izan eta horregatik aurka egin zieten erromatar paganoei eta arabiar musulmanei. Jatorrizko monoteismoaren aztarnek oraindik ere badiraute, ohitura kristauez mozorroturik. Sinesmen horrek framazoneriara hurbildu zuen azken urteetan (Umezurtza Santespiko La Parfaite Union-eko logiako kide egin zen 1846an). Xahok oso jarrera gogorra hartu zuen Eliza Katolikoaren eta, oro har, kristautasunaren kontra. Antiklerikalismo bizi horrek, besteak beste, esplikatzen du zergatik ahantzi duen Euskal Herriko historiografiak berriki arte.

## ABERTZALE ETA EZKERTIARRA?

Xahok eusko-iberismoaren eta kantabrismoaren mitoak indartu zituen. Euskara Iberia osoan mintzatu zelako usteak Sabino Aranagandik bereizten du. Honen arabera, euskaldunak arraza isolatu bat ziren, inolako ahaidetasun ezagunik gabea. Kantabrismoa paradigma bereziki garrantzitsu bat da: kantabriarrek —euskaldunek, alegia—, erromatarrek inoiz

menderatu ez zituztenek, goduei, musulmanei eta gaztelaei ere aurka egin diete eta independentziari eutsi diote karlistada arte. Independentzia garaian, Foruak izan dira Euskal Herriko konstituzioa. Ingelesak, Erdi Aroan, Lapurdi, Zuberoa eta Gaskonia osoa beretu zituztenez, euskaldunei ostu zieten konstituzioaren kontzeptua. Beraz, euskaldunek asmatu zuten demokrazia. 1835ean, *Philosophie des révélation*s-en dioenez, demokrazia aztien gobernu da eta teokrazia, fededunena.

Batzuetan esaten da Xaho sozialista zela. Hori batera egia da eta gezurra. Xaho errepublikar liberal bat zen eta ez zuen inoiz ezbaian jarri jabetza pribaturako eskubidea. «Gorria» zen Eliza eta Estatua-ren arteko bereizketaren aldekoa zelako, ez komunista zelako (hitz latzekin salatu zuen komunismoa behin baino gehiagotan). Haren lanetan ez dugu aurkituko leerro bat ere esklabutza antzean bizi izaten ziren morroien egoeraz edo ogia irabazteko Ameriketara joan behar zuten milaka euskaldunetz. Xaho, horretan, ez da salbuespen bat. Haren garaiko idazle gehienek, mugimendu nazionalisten teorikoak barne,



Lehen azti frantsesa. Pierre-Simon Ballanche (1776-1847)

Herriaren esentzien zaindari zeritzeten nekazariei, ez eskubide politikoen subjektu. Hori esanik, gaineratu behar da Pierre-Simon Ballanche (1776-1847) literatura frantseseko lehen aztizat jotzen denak Xahorengan ez ezik, Frantziako lehen sozialista «utopikoengan» ere eragin ikaragarria izan zuela. Ballanchek, Xahok eta «azti» guztiek Urrezko Arora *itzuli* nahi zuten (horixe esan nahi baitu *revolutio* latinezko hitzak) eta zentzu horretan *iraultzaileak* ziren.

Esana dugu Xahok, errepublikarra bazen ere, karlismoaren alde jo zuela. Lehen Karlistadan, Erresuma Batuari eta Frantziari komeni zitzairen aduanek Ebro ibaian, eta ez Pirinioetan, irautea, merkataritzarako zergarik gabeko eremu zabal bat edukitzeko. Horregatik, britainiarrek eta fran-

tsesek bultzatu zuten karlistada euskaldunen independentziaren aldeko borroka bat zelako ideia. Gaurko historiografiak frogatu duenez, foruek zerikusi gutxi izan zuten Euskal Herriko gerraren piztearekin, baina frantsesek eta britainiarrek foruen iraupena eta gerraren bukaera lotu zituzten. Baliteke Xahok zerikusirik izatea saio horiekin, baina ez daukagu inolako frogarik. Egia baldin bada Xaho euskal berezitasuna sustatzen ibili zela, Metternich eta Bismarck bezala ibiliko zen, Errusiaren kontra poloniar eta ukrainiar nazionalismoak bultzatzen ari zirela.

Baina, agian ez dugu hain gaizki pentsatu behar. Dozena bat urte eskas lehenago, Lord Byron-ek (1788-1824) bere gurtzada erromantikoa egina zuen turkiarren kontra Grezian. Nire ustez, antzeko izpirituak iradokirik etorri zen Aztia Nafarroara. Ez dugu ahantzi behar, gainera, atzerritar asko gerraren lekukoak izan zirela eta gero beren balentriak kontatu zituztela. Horrela, nolabaiteko euskaltzaletasuna bultzatu zuten Europako giro intelektualetan. Xahok, bere jarrera gnostikoagatik, uste osoa zuen Euskal



George Gordon Byron, Lord Byron (1788-1824), albaniarrez jantzirik

Herria borrokan ari zela Europako jatorrizko zibilizazioaren hondarrei eusteko. Tira, Xaho Carlos María Isidro de Borbón (1788-1855) erregegai karlistaren alde lerratua zen Nafarroara etorri baino urte bat lehenagotik, gutxienez. Irudi lezake *Voyage*-ren parte bat idatzia zegoela Euskal Herrian sartu aitzin. Izan ere, *Paroles d'un Bizkaïen aux liberaux de la Reine Christine* (1834) liburuan, karliste-



«Nafarren errege eta bizkaitarren jauna». «Don Carlos», Carlos María Isidro de Borbón (1788-1855)

kin harremanetan jarri baino lehen (baina Abrantèsko dukesaren etxera joaten ziren legitimista frantsesekin harremanetan zegoenean), esana zuen don Carlos zela nafarren errege eta bizkaitarren jauna. Gainera, Xahok bi aste baino gutxiago eman zituen Erresuma Zaharrean, 1835eko martxoaren 25etik apirilaren 8ra bitarte. Gaur badakigu ez dela egiatan ari Zumalakarregirekin elkarrizketatu zela dio-



Tomas Zumalakarregi (1788-1835)

elarik. Haren asmoa ez baitzen gertaerak aztertzea, literatura idaztea baizik. Jorge Oteitzak (1908-2003) esan zuenez, zuberotarra eta gipuzkoarra konpondu izan balira, Euskal Herriko historia erabat diferentea izanen zatekeen.

Gerra garaian, buruzagi karlistei, bereiziki Tomas Zumalakarregiri berari (1788-1835), leporatu zitzaion Euskal Herriaren independentziaren alde aritzea. Xahok

ez zituen zurrumurru horiek asmatu, ez eta hurrik eman ere. Lehen Karlistadan Euskal Herrian izandako bidaiari batzuek gauza bera adierazten dute. Esan behar da, dena dela, XIX. mendearen lehen erdian, «independentzia» hitzak ez zuela nahitaez gaur egungo esanahia (euskal estatu bat sortzea, alegia), Madrilgo gobernu ez onartu eta beste bat ezartzen saiatzea baizik, betiere Espainiaren barruan.

Xaho ezer izan bazen, heterodoxoa izan zen. Horregatik «euskaldun, fededun» goiburua berriki arte beretua duen Herri honetan, ezin izan zuen oihartzun handirik izan. Oraindik ere, misterio bat da Sabino Aranak ezagutzen ote zuen Xahoren obra. Egia da ez duela inoiz aipatzen, baina ia ezinezkoa da haren lanik arrakastatsuen, *Aitor, legende cantabre* (1845), irakurri ez izana, edizio asko izan baitzituen gaztelaniaz Aranaren garaian, Arturo Campión-ek itzulirik. Bestalde, ez da kasualitatea, Eusko Abertzale Ekintzak, Gerra Zibila baino lehen, interes handia erakustea Xahorengan. Ramón Berraondo eta Justo Garate ekinzaileek ia osorik itzuli zuten gaztelaniara



Xahori irakurri ote zion? Sabino Arana (1865-1903), Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailea



Xahoren itzultzailea. Arturo Campión (1854-1937) (Javier Cigak egin margolana, Nafarroako Museoa)

*Voyage en Navarre*. Ekintzak Arana Goiri-  
ren abertzaletasun arrazista eta konfesio-  
nalari itzala egin ziezaiokeen aurrekari



*Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* liburuaren bigarren edizioaren azala (1865)

historiko baten beharra zeukan eta Xaho hautatu zuen. Xahok oihartzun ukaezina izan du ezkerreko abertzaletasunaren bilakaeran. Hark ulertu zuenez, Lehen Karlistada Euskal Herria askatzeko borroka bat zen eta, Gerra Zibilaren ondoren, halaxe ulertuko zuten Telesforo Monzón-ek (1904-1981), Federiko Krutwig-ek (1921-1998) eta ETAk be-

rak (1958-2011?). Horrelaxe sortu zen Euskal Herriaren eta Espainiaren artean izandako 150 Urteko Gerraren mitoa (Lehen Karlistadaren hastapenetik, hots, 1833tik, hasita). Xahok ez zuen ustezko gerra horretan sinetsiko. Hark 5.000 urteko gerra batean sinesten zuen. Karlistada, haren aburuz, Eguzkiaren seme-alaben eta Gauaren seme-alaben arteko borroka bukaezineko gertakari bat besterik ez zen. Historiaz zeukan kontzepzio manikeo eta belizistak, ustekabean, Euskal Herriak luzaz nozituriko bortizkeria politikoari oinarri ideologiko bat eman zion.

Xahok Espainiaren federalismoaren eta Hego Euskal Herriaren independentziaren alde jo zuen, baina beti Frantziaren batasunaren alde, bereziki 1848tik aurrera. Oso gutxitan salatzen du zentralismo frantsesa, Iraultza garaian Ipar Euskal Herria Pirinio Apaletako departamenduan desegina zuena. Horrek ez du esan nahi Frantziaren eta Ipar Euskal Herriaren antolamendua bost axola zitzaionik. Izan ere, departamendu berri bat sortzea proposatu zuen: *Adour-et-Gaves*, Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa, Baiona eta Akize-



Fenizia Berriaren aldekoa. Kose Garat lapurtar legelaria (1749-1833) (argazkia: Baionako Euskal Museoaren bilduma)

ko barrutia bilduko zituena, Baiona izan zen litzatekeela hiri nagusia. Xahok bertako Merkataritza eta Industria Ganberak 1836an aurkezturiko proposamenarekin bat egin zuen eta horregatik Euskal Herriko Departamenduaren aldarrikapenaren aurrekari urruntzat jo dezakegu.

Esanak esan, Xahoren esaldiren batek susmarazi dit Aztiak ez zuela Hego Euskal Herria askatu nahi, Frantziari lotu baizik. 1794an, Konbentzio Gerran, Gipuzkoako Diputazioak Probintziaren independentzia aldarrikatu zuen, Errepublika Frantsesak babesturik. Kose Garatek (1749-1833) lapurtar abokatuak, Iraultza garaian Justizia eta Barne ministroa izana



Nafarroako errege?  
Louis-Charles-Philippe  
d'Orléans, Nemoursko  
dukea (1814-1896)

zenak, Fenizia Berria sortzeko proiektua aurkeztu zion Napoleon I.a enperadoreari 1811n, alegia, zazpi euskal herrialdeen batasuna, Enperadorego Frantsesari lotutako estatu beregain bat. Bonaparteren gibelasmoa Hego Euskal Herria ez ezik, Aragoiren erdia eta Katalunia osoa ere biltzea zen. Xahok, *De l'agonie du parti révolutionnaire* liburuan (1838), bi urte eskas lehenago don Carlosen alde eginiko apustuaz erabat ahantzirik, aditzera ematen du Nemoursko dukea izan litekeela Nafarroako errege. Garai hartan, Louis-Charles-Philippe d'Orléans (1814-1896) zen Nemoursko dukea, Louis-Philippe



# INTRODUCTION

PHILOLOGIQUE, GRAMMATICALE ET LITTÉRAIRE.

## CHAPITRE I.

Signes orthographiques et de prononciation modernes.

La première chose à étudier, quand on veut apprendre à parler et à écrire correctement une langue, est l'exacte prononciation des mots qui la composent, et, par suite, l'alphabet ou les lettres dont on se sert pour écrire ces mots. Les Russes, les Espagnols et les Français se servent des lettres romaines; mais, dans les langues de ces trois peuples, les règles de la prononciation qui leur ont été particulières diffèrent essentiellement des règles de la prononciation et de l'écriture latine.

Nous allons nous occuper d'abord de l'alphabet français; il est composé de 28 lettres, dont voici l'ordre, les signes et le son.

A,	B,	C,	D,	E,	É,	È,	Ê,
a,	b,	c,	d,	e,	é,	è,	ê,
F,	G,	H,	I,	J,	K,	L,	M,
f,	g,	h,	i,	j,	k,	l,	m,
N,	O,	P,	Q,	R,	S,	T,	U,
n,	o,	p,	q,	r,	s,	t,	u,
V,	X,	Y,	Z,				
v,	x,	y,	z,				

Il y a encore le double W, que la plupart des lexiconographes français ne font pas figurer dans leur nomenclature; il se prononce tantôt comme *ou*, tantôt comme *ou*; on peut dire que cette lettre n'est pas française, quoique les Français s'en servent pour quelques mots ou noms étrangers qui sont venus du Nord. On peut le prononcer *ou*, à la française.

Toutes ces lettres ont de genre masculin en français.

Il n'y a qu'un seul petit nombre de règles de quantité pour les voyelles *a, e, i, o, u, qui, de* lettres, ou voyelles, ou diphthongues, d'où il résulte que ces lettres ont des prononciations différentes, et que quelques uns ont des voyelles doubles. *E, qui* est latin, et dont on se sert rarement en français, se prononce *é*; *Q, qui* est aussi latin, se prononce également *e* en français.

Nous allons maintenant passer en revue les lettres dont la prononciation est variable. Il n'y a qu'une seule manière de concevoir l'alphabet français; c'est de dire qu'en cette langue la prononciation est en partie variable avec l'orthographe, et que les Français prononcent leurs mots tout autrement qu'ils ne les écrivent.

Ai comme tantôt *é*, et tantôt *è*, quelqufois dans le même mot. *Am*, syllabe de trois voyelles, se prononce comme *É* ou *È*. *As* se prononce *é*, que quand *É* est serré de trois, ou du double sans un point sur. *At* fait *é*, — et quelqufois *è*, comme dans *Attache*. *Ar* se prononce *é* ou *è*. Le mot et la syllabe *Est* se prononcent également *é*. *Es* se prononce *é*, toutes les fois que *É* n'est pas signifié par *é*; on prononce *Baise* (ou *caillou* *caisse*, ou *laine* *caisse*), comme *é* il y avait *é*. *Et* se fait jamais *é*, et la prononciation de cette syllabe, que les lexiconographes ne peuvent représenter par aucune autre lettre, ressemble à celle de *É* moyen ou faible. *On* fait *ou*, *ou*; les Français prononcent *glorie* (ou *laine* et en caillou *glorie* comme *é* il y avait *glorie*). *Bai* (*bay*, *rai*) fait *ou*, et *royal*, *royale*; d'autres lexiconographes disent que *É* représente deux *i* dans *royal*, *royale*. *Emb* comme *emb*. *En*, devant *h, f, j, l, r, s, t, v*, fait *ou*. *Emmi* fait *ou*, et *emmi*, *emmi*. *En* est un *é*.

*Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin*  
hiztegiko lehen orria (1856) (Koldo Mitxelena  
Kulturuneko jatorrizkoa, Gipuzkoako Foru Aldundia)

kalgintzari ekarri zion lan eragingarriena kazetaritzan egin zuen. Euskarazko artikulu batzuk idatzi zituen, gehienak *Ariel*-en argitaratuak. Hortik aparte, euskarazko astekariaren lehen saioa burutu zuen: *Uscal-Herrico Gasetta*, bi ale besterik eman ez zuena, 1848ko ekainaren 30ean eta uztailaren 25ean. Horregatik baka-

rrik balitz ere, Xahok «bidegile» izena mereziko luke eskubide osoz. Ia berrogei urte itxaron behar dugu Los Angelesen euskarazko astekariaren bigarren saio bat egin dadin (*Escualdun Gazeta*, 1885) eta ia ehun urte Bilbon lehen egunkaria sor dadin (*Eguna*, 1937).

Ortografian, hiztegegintzan eta etimologian ere izan zuen oihartzuna Xahoren lanak. Euskararen batasun ortografikoari dagokionez, gaur egun euskaldun guztiok naturaltasun osoz darabiltzagun «k», «ts», «z», «ñ» eta (frantsesezko «ou» digrafoaren ordeztu) «u» grafemak behin betiko errotzen lagundu zuen. *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin* lau hizkuntzako hiztegi bukatugabea argitaratu zuen 1856an, bakarrik «M» letrairaino iristen dena. Euskarak, Lizardi lagun, hitzen bat onartu du Xahok eman zion esanahiarekin (adibidez: «maitagarri», *fée/bada*). Haren ustea zenez euskara Europa gehiengan, Afrikan eta Asian mintzatua zela, Xahoren etimo gehienek ez dute ez buru ez buztan, baina bakan batzuk, adibidez, «adiskide» («adin»-etik) eta «erdara» («erdi»-tik) onartuak daude


gaur egun. Euskalkiez gaindiko hizkuntza literarioarekiko interesa erakutsi zuen. Haren ama euskalkia zuberera bazen ere, lapurtera zabaltzen saiatu zen, uste baitzuen joriena eta landuena zela. Egia edo ez, kontua da lapurtera, gipuzkerarekin eta nafarrera garaiarekin batera, ehun baino gehiago urteren buruan, euskara batuaren oinarria izanen zela. *Biarritz, entre les Pyrénées et l'Océan* (1855) liburuan Euskal Akademiaren sorrera iragarri zuen, Euskaltzaindia (1919) oraindik amets bat ere ez zenean. Ezin uka horretan behintzat Xaho egiazko profeta bat izan zela.

Xahoren euskararekiko jarrera ezin da bereizi haren ideia erlijiosoetatik. Antoine Court de Gébelin (1719-1784) eruditu esoterikoaren teorietan oinarriturik, pentsatzen zuen, oraingo hizkuntzen bidez, jatorrizko hizkuntza ezagut zitekeela. Agostiren lehen lanetako bat *Paroles d'un voyant* izan zen, 1834an argitaratua eta berehala Gregorio XVI.a aita santuak liburu debekatuen *Index* delakoan sartu zuena. Lan horretan zantzu batzuk ematen dizkigu aztien hizkuntza hori irudikatzeke. Xahori esker dakigu hizkuntza horretan

hitz berak bi esanahi dituela. Adibidez: mintzaira sakratuan berdin esaten da *vérité* eta *soleil*, *blanc* eta *agneau*, *feu* eta *serpent*, *nourriture* eta *instruction*, *année* eta *inondation*... Hori ez da hala frantsesez, baina bai euskaraz. *Vérité* «egia» da eta *soleil*, «ekhia»: hortik *Ekiristi*, alegia, Kristo, eguzkiaren pertsonifikazioa. *Blanc* «xuria» da euskaraz eta *agneau*, «axuria» eta hortik euskaldunak ez beste hegotar herriek Kristori emaniko izenak: *Chourien* (Surya) indiarrek, *Osouris* (Osiris) egiptoarrek eta



Antoine Court de Gébelin (1719-1784)



*Chourmusd* (Ormuzd) pertsiarrek. *Feu* «sua» da eta *serpent*, «sugea», suge batek suaren bidez suntsitzen baitu unibertsoa 60.000 urtetik behin. *Nourriture* «jakia» da eta *instruction*, «jakin», zientzia arimaren elikagaia baita. Azkenik, *année* «urtea» da eta *inondation* «urtzea» izan daiteke, Egiptoko aztiak konturatu baitziren Nilo ibaiak urtero egiten duela gainezka. Imajinatzen ahal dugu Félicité de Lamennais-en ezinegona Xahok *Paroles d'un croyant* (1834) liburuari emaniko erantzuna irakurri bazuen. Eta urrikaltzen naiz Brian Juden-ekin eta Marc Eigeldinger-ekin, biek pazientzia miresgarri batekin Xahoren obra aztertu baitute, ulertu gabe bere ama hizkuntzaz ari zela. Agostik frogatu nahi zuen euskara gizateria osoaren (edo, behitzat, gehienaren) hizkuntza izan zela Lehen Aroan.


## Euskararen jatorriaren bila

Euskaldun guztiak bezala, Xaho oso interesaturik zegoen euskararen jatorrian eta saiatu zen gure hizkuntza beste batzuekin alderatzen, hala nola, akitanierarekin (zuzen) eta iberierarekin (oker). Euskararen

jatorriari buruzko kaukasiar hipotesia ez zuen garatu, baina, Jeronimo (340-420) santuaren garaitik datorren ideari lotuz, Antzinatean zeuden bi Iberiak (Europaren hego-mendebalekoa eta Georgiakoa) uztartzen saiatu zen. Elizaren Aitaren iritzia iritzi, Xaho ez zegoen prest onartzeko georgiarrak Euskal Herrira etorri zirela eta nahiago izan zuen pentsatzea euskaldunak Georgiara joan zirela.

Xaho bere garaiko hizkuntzalaritza konparatuaren aurrerapenen jakinaren gainean zegoen. Adibidez, ongi informatua zegoen indoeuropeistikaren lehen eta dudu-mudazko urratsez. Salmasius, Stiernhelm, Boxhornius eta Leibniz-ek arlo horretan eginiko ikerketen berri bazuen. *Lettre à M. Xavier Raymond* liburuan (1836), euskararen eta sanskritoaren arteko loturak aztertu zituen. Berez, Xahok ez dio inolako harremanik dagoenik euskararen eta indoeuropar hizkuntzen artean, baizik eta euskararen eta iparraldeko vediko edo eszitiarren (hots, indoeuroparren) inbasioa baino lehen Indian hitz egiten ziren hizkuntzen artean. Sanskritoak aurre-indoeuropar substratuaren

hondarrak gorde ditu eta Xaho horiek euskararen bidez bilatzen saiatu zen. Agian, uste zuen euskara gaur egun Indiaren hegoaldean hitz egiten diren mintzaira dravidiarrekin loturik zegoela. Hori horrela, Aztia Holger Pedersen (1867-1953) daniarraren «nostratiko» eta Morris Swadesh (1909-1967) amerikarraren «euskara-dene» hizkuntza makrofamiliaren eta Theo Vennemann (1937) alemanaren



Anton Abadia-Ürrüstoi (1810-1897)

Europa osoko «Proto-Vasconic» teoriaren aitzindari bat izan liteke. Zer esanik ez, hipotesi horiek inork gutxik onartzen ditu gaur egun, baina ezin uka arras erakargarriak direla.

## Mito sortzailea

Mitoak beharrezkoak badira giza talde ororen batasuna oinarritzeko, Xaho da Euskal Herriko mitogonirik handiena. Kondaira asko zor dizkiogu. Adibidez, Aitor eta Amagoia euskaldunon gurasolehenak. Edo Maitagarri eta Luzaide maitale platonikoak, euskal tradizioarekin zerikusirik ez dutenak, mitologia grekoko Selene eta Endimion baizik ez baitira. Beste zuberotar batekin, Anton Abadia-Ürrüstoiarekin (1810-1897) idatziriko *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (1836) liburuaren eskaintzan, euskaldun guztiok batzen gaituen *Zazpiak-Bat* goiburuaren lehen aldarrikatzailetako bat izan zen.

Xahok euskal folklorea ezagutu eta ezagutarazi zuen. Haren arabera, *Tartaro* euskal mitologiako begi bakarreko

erraldoia zorigaitzeko zelten alegoria besterik ez da. *Basajauna*, basabürütarrak zioenez, *orangutana* da (egia esan, txinpantzea edo bonoboa adierazi nahi zuten), hitz horrek hain zuen ere «basa jauna» esan nahi duelako malaysieraz. Euskaldunak Afrikan zeuden garaian gizaide espezie horrekin bizi izan ziren eta XVIII. mendean, oraindik ere, ale batzuk Pirinioetan atzemanak ziren. Mitologia klasikoko satiroak eta silbanoak ere «orangutanak» omen ziren. *Lamiak* ere baditu hizpide Xahok bere lanetan. Azkenik, Aztiaren *Leherensugeak* kosmosaren suntsitzaileak, zerikusi handiagoa du orfikoan jatorrizko sugearekin Euskal Herriko mitoetako dragoiarekin baino. Hark zioenez, Leherensugeak beste izen bat du kasuan kasuko mitologian: *Chub* (Shiva) Indian, *Typhon* (Seth) Egipton, *Abriman* Pertsian eta *Satan* Israelen.

Gaurdaino iritsi diren errefrau, herri kanta eta maskaraden iraupenak agian pentatu baino gehiago zor dio Xahori. *Ariel* aldizkarian ehun bat kantu argitaratu zituen, euskalki guztietakoak. Egiazko tradizioak berak asmatu-rik kontuekin

nahasi zituen, adibidez, *cowade*-rekin. Estrabonen arabera, antzinako kantabriarren artean, emakumeak, erditutakoan, ohetik jaiki eta senarrari uzten zion tokia. Xahok ezbaian jartzen ez zuenez euskaldunak (edo, behintzat, arabarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta lapurtarrak) kantabriarrak zirela, zeharo sinesten zuen errito horretan.

XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko euskararen apologistak irakurriak zeuzkan, erdaraz idazten zutenak, hala nola, Poza, Larramendi, Bela, Astarloa, Zamakola eta Erro. Haien ideiak zabaldu eta forma literarioa eman zien. Hemen, noski, ezagutzak ez du zaletasuna esan nahi, baina bistan da Arana Goirik baino anitzez aiseago aipatzen zituela idazle horiek guztiak (Astarloa izan ezik). Euskarazko literatura klasikoa ongi ezagutzen zuen, Axular eta Oihenart bereziki, eta kantu apokrifoak ere bai, Altabizkarkoa, Lelorena eta Hanibalena, adibidez (bi kasu horietan ere, Sabinorekiko aldea nabarmena da). Hala ere, hark aitortzen zuenez, euskaldunek ez zuten litera-



Antoine Fabre d'Olivet okzitaniar idazlea  
(1767-1825)

tura nazionalik, Euskal Herriko idazle gehienak latinaz, gaztelaniaz eta frantsesaz baliatu izan direlako.

Euskara giltzarria da Agostiren pentsamenduan, baina, egia esan, apologista haien guztien gogoetatik ez oso urrun. Basabürütarraren aburuz, euskararen gramatika sintetikoak pentsa litezkeen bertute guztiak zeuzkan nazioarteko hizkuntzaren oinarria izateko. Xahoren hizkuntza teoriak, beraz, Sabino Aranaren garbizaleke-

riaz beste muturrean daude. Euskararen apologiak nolabaiteko esperanto bihurtu nahi izateko punturaino eraman zuen zuberotarra, Lazaro Ludoviko Zamenhof (1859-1917) baino hogeita hamar urte lehenago. Joskera aldatu beharrik gabe, euskarak Lurreko hizkuntza guztietako bost milioi hitz bereganatu litzake. Palingene-si linguistikoaren ideia hori Mendekoste laiko bat da eta Antoine Fabre d'Olivet (1767-1825) okzitaniarrarengandik hartua dago. Fabrek sekulako eragina izan zuen Benjamin Lee Whorf (1897-1941) hizkuntza erlatibismoaren bultzatzaile nagusiarengan. Whorfek uste zuen hizkuntzak pentsamendua determinatzen duela. Denok dakigunez, hipotesi hori, nire ustez inolako funtsik ez daukana, nazionalismo guztien oinarrietako bat da. Bitxia da, beraz, hipotesi horren sorreraren eta erromantiko euskaldun baten arteko zeharkako lotura. Whorfek ere izan zuen amets gizateriaren jatorrizko hizkuntza, geroko nazioarteko hizkuntza izatekoa zena. Xahok dudarik egiten ez zuenez jatorrizko hizkuntza hori euskara zela, haren ikuspegitik, erabat logikoa zen *avant la lettre* esperantoa huraxe izan zedila.



## «Azken Euskalduna»

(Argazkia: Baionako Euskal Museoaren bilduma)

Xaho politikoagoa izan zen Ipar Euskal Herriko euskaltzaleak baino eta kulturalistagoa Hego Euskal Herriko foruzaleak (eta abertzaleak) baino. Harengan Bidasoaz bi aldeetako tradizioak elkartu ziren. Orain bien arteko sintesi berri baten zain gaude.


2011ko urriaren 10ean berrehun urte beteko dira inoiz izan den euskaldunik interesgarrien eta zoragarrienetako bat jaio zenez geroztik. Dakidala, Euskal Herriko erakunde publiko batek ere ez dio omenaldirik prestatu. Gaur egun, Xahok, oraindik ere, «umezurtz» dirau. Karlista eta libera-la izan zelako. Legitimista, orleanista eta

errepublikarra. Euskaldun eta frantsesa. Zuberotar eta manexa. Nafar eta bizkaitarra. Laiko eta hargin beltza. Agosti ez da inorena eta guztiona da.


Mende eta erdi baino gehiago pasa da hil zenez geroztik eta oraindik ez daukagu liburu akademiko bakar bat ere, haren bizitza eta haren lana azaltzen dituenik (Patri Urkizurena eta Joseph Zabalorena abiapuntuak izan litezke). Hari buruz idatziriko doktore-tesiak (Fermin Arkotxarena, adibidez) oraindik ez dira argitaratu. Haren artikulu eta liburu gehienak sakanatuak daude eta beste batzuk behin betiko galdu dira. Interneten garaian ia ezi-



Xahoren heriotza-agiria, Baionan (argazkia: Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxiboetako Zerbitzua)



Xahoren izenpea



Xahoren bustoa haren hilobian, Baionako San Leon hilerrian. Poema, nostratikoz, Vladislav Illich-Svitych (1934-1966) ukrainar hizkuntzalariak idatzi zuen eta hauxe esan nahi du: «Hizkuntza pasabide bat da denboraren ibaian. Hark garamatza gure arbasoen etxera. Baina ur handien beldur direnak ezin izanen dira inoiz ailegatu» (argazkia: Xabier Zabaltza)

nezkoa da haren izkribu anitz atzematea. Haren sortetxea, Atharratzeko trinketa, ostatua izan zen luzaz eta gaur egun guztiz eskutik utzia da. Behera erortzen ari da. Euskaldunen Xahorekiko utzikeria uler-tezina da. Barkaezina, esanen nuke nik.

Élisée Reclus (1830-1905) geografo eta idazle anarkistak «Azken Euskalduna» iritzi zion Xahori (Xahok Zumalakarregi-ri iritzi zion bezala). Mende eta erdi iragan-ik, Azken Euskalduna da beti.



Xahoren omenezko plaka, haren sortetxean (1909) (argazkia: Maitena Etxebarne)

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzaga-  
tik, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Anuntxi Aranari
- Atharratze-Sorholüzeko Herriko Etxeari
- Baionako Euskal Museoari
- Patxi Caspisteguirri
- Aines Dufauri
- Aña Durrutyri
- Maitena Etxebarneri
- Koldo Mitxelena Kulturuneari
- Nafarroako Museoari
- Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxiboetako Zerbitzuari
- Elisabete Zubillagari

---

Zuzendaritza:	Jerardo Elortza
Argitaraldia:	1.a, 2011ko abenduan
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazki-tratatzailea:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	RGM, S.A. • Pol. Igeltzera pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia
Inprimaketa:	RGM, S.A. • Pol. Igeltzera pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia
ISBN:	978-84-457-3166-6 (Lan osoarena) 978-84-457-3168-0
L.G.:	BI 2279-2011



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística